

Bizitza bizitzeko baita

KENSUKEREN MUNDUA

Izenburua, *Kensukeren mundua*, Jatorrizko izenburua, *Kensuke's Kingdom*, Egilea, Michael Morpurgo, Marrazkiak, Michael Foreman, Itzultzailea, Uxue Alberdi Estibaritz, Argitaratze urtea, 2008, Argitaletxea, Elkar (Xaguxar bilduma).

ANDER ARANA

BIGARREN Mundu Gerraz geroztik irla batean bakarrik bizi den japoniar bat, kumeak ehiztariengandik babesten dituzten orangutanak, hondartzatik itsasora babes bila doazen dortokak... Michael Morpurgo idazle ingelesak (Hertfordshire, 1943) errealitatetik hartutako irudiak dira horiek denak, eta, fikzio baten bidez, beste errealitate bat sortzeko erabiltzen ditu. Idazleak berak esana da ez duela abentura nobela soil bat idatzi nahi izan, ezpada istorio sinesgarri bat, zortzi urtetik hamabi urtera bitarteko irakurle gazteek sinesteko modukoa –adin horretako umeentzako liburua da, nahiz eta Xaguxar bilduma hamabi urtetik aurrerako gaztetxoei zuzendua dagoen–. Eta zinez, adin horretako neska-mutikoa, liburua irakurtzen duenean, Michael naufragorik gaztearen larruan sartuko dela iruditzen zait, Morpurgo trebea baita halako istorioak asmatzen eta idazten.

Halatan, *Kensukeren munduari* esker The Children's Book Award saria jaso zuen 2000n, eta 2003an, berriz, Children's Laureate saria eman zioten, bizitza osoan zehar haur literaturaren alde eginiko lanagatik. Euskaratutako liburuen txoko honetan esandakoak jarraitzen dituenak gogoan izanen du, segur aski, Ander Irizarrek Morpurgoren *Peaceful soldaduez* eginitako kritika.

Historiari eta bizitzari buruzko irakaspenez betetako istorioa da *Kensukeren mundua*, zaharren jakinduria eta egonarrria eta gazteen kemena eta egonezina aurrez aurre jartzen dituena. Irakurlearen irudimena irla horretara hegan doan bitartean, Kensuke zaharrak Bigarren Mundu Gerraz, Nagasaki kiko bomba atomikoaz, Hokusai margolariak eta abar hitz egiten dio Michael gazteari.

Liburu keinuz betea dugu honako hau. Stevenson Altxor uhartea denez Morpurgoren libururik kutunenetakoa ez da harritzekoa adiskidetasunari buruzko istorio hau irla huts batean gertatzea; liburuko protagonistak Michael du izena egileak bere burua istorioan sartuta ikusi nahi zuelako; yatea Peggy Sue da hain zuzen ere bere emaztearen abeslaririk gustukoen Buddy Holly delako; eta naufra-

go zaharra Kensuke dugu Morpurgo liburuak sinatzen ibili zen batean Kensuke izeneko mutiko bat hurbildu zitzaizolako sinadura eske...

Euskarazko itzulpena Uxue Alberdiren da. Hogeita lau urteko kazetari honek idazle berrientzako 2005eko Igartza saria irabazi zuen *Aulki bat elurretan* ipuin bildumarekin, eta Gipuzkoako bertsolari txapelketako finalerdietarako sailkatu zen 2007an. Ez da makala, gero, elgoibartar gaztea!

Alberdik dio liburua itzultzea jolas baten modukoa izan zela, batez ere Kensukeren eta Micasanen –zaharrak hala deitzen baitio gazteari– arteko elkarrizketak; izan ere, Kensukek berrogei urte darमतza bakarrik bizitzen, eta ahaztua duenez zekien ingeles apurra, Michaelen hitz eginez berrikasiko du hizkuntza; horrela, bada, bien arteko harremanaren bilakaera eta hizkuntza berreskuratzeko prozesua eskutik doaz, eta Alberdik hori ongi islatzen asmatu du.

Ez hemen, baizik eta beste eztabaida-lekuren batean jorratu beharreko gaia da, inondik ere, euskaratutako testuek arauak (hiztegi batua eta abar) zorrotz bete beharrena. Itzultzaileok, nire ustez, erantzukizun nabarmena dugu arlo horretan, are gehiago gazteeni zuzendutako testuen kasuan, baina argitaletxeek ere zeregin eta zeresan handia dute, jakina denez itzulpen prozesua ezin baita bukatutzat eman testua goitik behera zuzendu arte.